# BANDOA

## ZUMARRAGAKO HERRIARI

Fundación Fórum Ambiental eta Smart City Expo World Congress-ek Zumarragari "Hiri jasangarria" saria eman diote Klima Aldaketaren kategorian; berebiziko garrantzia duen sari paregabea, inondik ere. Honen aurrean, Zumarragako EH Bilduk zorionik beroena ematen dio Zumarragako Udalari eta herritar oro gonbidatzen du, geroni ari garen bezala, saria jaso izanagatik ikaragarri poztera eta iragarritako edozein ospakizun gogoangarritan parte hartzera.

Era berean, ondoko gaiei buruzko informazioari muzin egin eta oroitzapenen kutxan gordetzera gonbidatu nahi ditu herritarrak:

- **2013an Euskal Herriko Autonomia Erkidego osoan, Zumarraga izan da airearen kalitate okerrena duen hiria.**

- **Zumarragak Europako Parlamentuak eta Kontseiluak indarrean jarritako 2008/50/CE legeak (ingurumeneko airearen kalitateari eta Europako atmosfera garbiago izateari dagokiona) kutsadurari ezartzen dizkion mugak 23 aldiz gainditu ditu 2013an.**

- **Osasunaren Mundu Erakundearen esanetan, zenbat eta handiagoa izan hiri bateko kutsadura atmosferikoa, orduan eta okerragoa da bertako biztanleen aparatu kardiobaskularraren eta arnas-aparatuaren osasun-egoera.**

- **Urola Garaiko airearen kalitatea hobetzeko Ekintza Plana gauzatzera bideratutako aurrekontua 0 eurokoa izan da 2013an eta Udalari burutik pasa ere ez zaio egin aipatutako Ekintza Plana berrikustea.**

- **Lurpeko aparkalekuaren erabilera eskasak agerian uzten duenez, ez da bizikletaren erabilera handitu eta Renfek ere ez du tren bakar bat bera ere indartu behar izan. Hauexek dira intermodalitate eraginkor baten gabeziaren adierazleak.**

Klimaren aldaketaren aurkako borrokan Zumarragako geltoki intermodalak egiten duen ekarpenaren aurkikuntza aparta kontuan harturik, Zumarragako EH Bilduk proposatzen du:

- **Varsoviako konferentziaren porrota ikusita, 2014an Zumarragaren hautagaitza aurkeztea Klima Aldaketaren inguruko XX. Nazioarteko Konferentziari ostatu emateko leku gisa.**

- **Kyotoko protokoloaren porrota ikusita, nazioarteko aditu eta zientzialariak gonbidatzea Zumarragako lurpeko aparkalekuak CO2 isurketak desagerrarazteko duen aparteko gaitasuna sakonki azter dezaten.**

Ante el importantísimo y sin parangón premio "Ciudad Sostenible" otorgado a Zumarraga por la Fundación Fórum Ambiental y el Smart City Expo World Congress, en la categoría de Cambio Climático, EH Bildu de Zumarraga felicita efusivamente al ayuntamiento de Zumarraga e invita a toda la ciudadanía, tal como lo hacemos nosotros, a congratularse con el premio recibido y participar del cualquier fasto celebratorio que se convoque.

Asimismo invita a la ciudadanía a omitir y guardar en el baúl del olvido toda la información relativa a que:

- **Zumarraga haya sido la ciudad con peor calidad de aire de toda la Comunidad Autómoma Vasca en 2013.**

- **En 2013, Zumarraga haya superado en 23 ocasiones el límite permitido de contaminación por la Directiva 2008/50/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, relativa a la calidad del aire ambiente y a una atmósfera más limpia en Europa.**

- **Según la Organización Mundial de la Salud cuanto mayor es la contaminación atmosférica de una ciudad, peor es la salud respiratoria y cardiovascular de su población.**

- **El presupuesto destinado a la ejecución del Plan de Acción para mejorar la calidad del aire del Alto Urola en 2013 haya sido de 0 euros. Y de que el ayuntamiento ni siquiera se haya preocupado lo más mínimo de hacer una revisión del mismo.**

- **Tal como evidencian los nulos índices de utilización del parking subterráneo, no se observe ni un mayor uso de la bicicleta, ni que Renfe haya tenido que reforzar ni un solo tren, como indicadores de la ausencia de una efectiva intermodalidad.**

Teniendo en cuenta el gran descubrimiento que supone la contribución de la estación intermodal de Zumarraga en la lucha contra el cambio climático EH Bildu de Zumarraga propone:

- **Tras el fracaso de la conferencia de Varsovia, la candidatura de Zumarraga para albergar la XX Conferencia Internacional sobre Cambio Climático en 2014.**

- **Tras el fracaso del protocolo de Kyoto, invitar a expertos y científicos internacionales para analizar en profundidad el extraordinario fenómeno por el cual el parking subterráneo de Zumarraga es capaz de hacer desaparecer las emisiones de CO2.**

ehbildu